

EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITIRA GARBIKETA ARLOKO LANTEGIKO BURU LANPOSTU FINKOA ESTALTZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ETA HAUTAKETA PROZESURAKO KANPOKO DEIALDIA.

Indesa 2010 SLren Administrazio Kontseiluak, 2024ko abenduaren 17an, sozietateko lanpostu zerrenda aldatzea erabaki zuen, Garbiketa Arloko Lantegiko buru lanpostu bat sortuz. Lanpostu hori sortzea justifikatu zen amortizatu egin zelako Enplegu Bereziko Lantegiko langileburu lanpostua (52.012 kodea), INDESA n zerbitzuak ematen zituen Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde karrerako funtzionario bat erretiratzegatik.

Plaza hutsen, eta hala badagokio, sortu berri diren plazen eginkizunak, erantzukizunak eta sarbide sistema Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 29an egindako bilkuran, onetsi zuen lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian jasotzen dira. Langile publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak kasuan kasuko hautaketa prozesua irekitzea ezartzen dute. Haren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publikitate printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

2024ko apirilaren 4an, Egoitzak eta Beste Zentro Batzuk Garbitzeko Arloko Lantegiko buru lanpostu finko baten barne sustapeneko hautaketa prozesuaren oinarriak onetsi eta horren inguruko ebazpena eman zen, eta esleitu gabe utzi behar izan zen, hautagairik ez zegoelako. Urtebete igaro denez, eraginkortasuna eta efizientzia direla eta, kanpoko prozesu baten bidez beteko da lanpostua.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Onespena ematea Garbiketa Arloko Lantegiko buru lanpostu finkoa kanpoko deialdi baten bidez estaltzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarri orokorrei eta espezifikoei, bai eta eranskinei ere.

BIGARRENA.- Onespena ematea kanpoko deialdiaren bidez egindako hautaketa prozesuaren deialdiari, aipatutako plazara sartzeko. Bestalde, eskaerak eta agiriak aurkezteko epea oinarri orokorretan adierazitakoa izango da.

LAUGARRENA.- Hautaketa prozesuaren hautaketa organo gisa honako hauek izendatzea:

- lehendakari gisa, Giza Baliabideen Zuzendaritzako titularra edo haren ordezkoa.
- kide gisa, Arloen Zuzendaritzako, Finantza Zuzendaritzako eta Eragiketa Zuzendaritzako titularrak.

- idazkari gisa, Lege Zuzendaritzako teknikari bat.
- Batzordeko ordezkari bat bertaratu ahal izango da, hitzarekin baina botorik gabe.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea batzordeari.

Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 30a

ANDER
EGUIDAZU
ALDALUR -
44678416L

Firmado digitalmente
por ANDER EGUIDAZU
ALDALUR - 44678416L
Fecha: 2025.01.30
13:29:17 +01'00'

Ander Eguidazu Aldalur
INDESA 2010 SL enpresako zuzendari-kudeatzailea

PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK KANPOKO DEIALDIAN GARBIKETA ARLOKO LANTEGIKO BURU LANPOSTU BAT ESTALTZEKO

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.- ARAU OROKORRAK

- 1.1.- Oinarri orokor eta oinarri espezifiko hauen xedea da hautaketa prozesua arautzeko arauak ezartzea, kanpoko deialdian, Garbiketa Arloko Lantegiko buru lanpostu bat estaltzeko; hori guztia, Indesa 2010 SL enpresaren hitzarmen kolektiboan eta sozietatearen lanpostua deskribatzeko eta baloratzeko memorian ezarritakoaren arabera.
- 1.2.- Ariketei deialdi honetan oro har ezarritakoa aplikatuko zaie. Hautaketa sistema, txanda, baldintza espezifikoak, hautaketa proba, puntuazioak eta gainerako arau partikularrak oinarri hauetan jasotzen den hautaketa prozesua arautzen duten oinarri espezifikoaren arabera arautuko dira.
- 1.3.- Halaber, deialdi honen xedea da, hala badagokio, lan poltsa batez hornitzea deitutako lanposturako (Garbiketa Arloko Lantegiko burua), enpresan sor litezkeen aldi baterako beharrak betetzeko.
- 1.4.- Deitutako plazetarako ezarritako baldintzak ezingo dira inola ere bete nahitaezko probak eta baztertzeko probak gainditu ez dituzten hautagaien bidez, deialdiaren oinarri hauen arabera.
- 1.5.- Izangaietako batek ere ez badu prozesua gainditzen, edo hutsik geratzen bada hautagaiak ez aurkezteagatik, haren kanpoko deialdia egingo da.
- 1.6.- Prozesuak, gutxienez, % 33ko desgaitasun maila baloratuko du hala egiaztatutako hautagaiengan.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK.

- 2.1.- Eskatutako titulu akademikoa izateaz gain, titulua izapidetzeko eskubideak ordainduta ere izan beharko ditu.
Hautaprobetan onartzeko eta parte hartzeko, oinarri orokorretan adierazitako baldintzez gain, izangaiak unibertsitate graduko titulua izapidetzeko eskubideak ordainduta ere izan beharko dituzte.
- 2.2.- Ez ditu izan behar kasuan kasuko eginkizunak egitearekin bateragarriak ez diren osasun arazoak. Horrela, jatorrizko lanpostuaren eginkizunekin bat ez badatoz, nahitaezkoa izango da osasun azterketa egitea.
- 2.3.- B motako gidabaimena dutela egiaztatu beharko du.
- 2.4.- Lanpostuarekin zerikusia duen gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatua izan beharko du (eraikinak eta altzariak garbitzeko zerbitzuak kudeatzeko jarduerak, bere kargura langileak izanda; baliozkotzat jo daiteke erakunde edo enpresentzat egindako lorezaintza zerbitzuen kudeaketan izandako esperientzia, edo eraikinen mantentze zerbitzuen kudeaketan izandako esperientzia, baldin eta horrek eskatzen badu lan taldeetako berezko langileak egotea bezeroaren instalazioan).
- 2.5- Ezagutza fasean egiaztatuko du:

Informatika tresnak maneiatzea eta ezagutzea, eta bere eskura jarritako baliabideak eta bitartekoak zuzentzeko, planifikatzeko, kontrolatzeko edo antolatzeke gaitasuna izatea, baita helburuetara eta emaitzetara begira lan egitekoa ere.

Nahitaezkotzat ezartzen diren baldintza guztiak bete beharko ditu eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan.

2.6- Ez da egon behar bereizita inongo administrazio publikotako edo Euskal Sektore Publikoko sozietate publikoetako zerbitzutik diziplina espediente bidez, ezta eginkizun publikoak betetzeko irmoki gaitasun gabetuta ere.

HIRUGARRENA.- ESKAERAK

3.1. -Prozesuan parte hartu nahi dutenek hala jaso beharko dute 0 eranskin gisa atxikitako eskaeran, zeina honela entregatu beharko baita:

a) Indesaprocesoselectivo@araba.eus , honako hau adieraziz ERREF. INDESA LANTEGIKO BURUA.

b) Indesa 2010 SLren egoitza nagusia (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua, 01005 Gasteiz), 08:00etatik 15:00etara.

Ez dira hautaketa prozesuan onartuko eskatutako nahitaezko prestakuntza edo horren baliokidea egiaztatuta ez daukaten hautagaiak. Eskaerarekin batera jatorrizko dokumentu hauek ere erantsi beharko dira nahitaez.

- Eskaera (0 eranskina)
- Eskaera aurkezten den egunean indarrean dagoen NANaren fotokopia.
- B motako gidabaimenaren fotokopia.
- Bigarren oinarrian ezarritako titulua eta baldintzak egiaztatzea.
- Hautagaien deitutako plazarekin zerikusia duten lanpostuetan izandako esperientziaren egiaztagiria. Horrez gain, dokumentu hauek ere nahitaez aurkeztu beharko dituzte:
 - Curriculum vitae.
 - Lan bizitzaren agiri eguneratua.
 - Lan kontratuak.
- Hala badagokio, % 33 baino gehiagoko desgaitasuna aintzatetsita izatea.

Eskaera mezu elektronikoz bidaliz gero, hautaketa prozesuko lehenengo proba egin aurretik, 5 egun balioduneko epea emango zaie onartutako pertsoneri aurretik adierazitako dokumentazioaren jatorrizko aleak aurkez ditzaten. Epe barruan eta zuzen egin ezean, hautagaitza ezetsiko da.

3.2.- Indesa 2010 SLren egoitza nagusian aurkeztuko dira eskaerak (Alaba Jeneralaren kalea, 10-5), goizez, 08:00etatik 15:00etara, 2025eko urtarrilaren 31tik 2025eko otsailaren 14ra, biak barne.

3.3.- Hautaketa prozesua izapidetzen den bitartean, Hautaketa Organoak 5 egun balioduneko epea irekiko du (behar bezala argitaratuko da) **baloratzekoak diren merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko. Ordura arte egindako nahitaezko eta baztertzeko ariketak gaingitu dituzten hautagaien zat bakarrik izango da.** Merezimenduen dokumentuak egiaztatzeke, jatorrizkoak eta haien kopiak aurkeztuko dira; Indesa 2010 SL enpresaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak konpultsatuko ditu kopiak.

3.4.-Hautaketa Organoak ezingo du inola ere baloratu merezimendurik, baldin eta ez badira egiaztatu behar bezala alegatu eta aurkezteke ezarritako epe barruan. Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena.

3.5.- Hautaketa prozesuan parte hartzea borondatezkoa da, eta parte hartuz gero, datu pertsonalak tratatzeko, eta hala badagokio, proba psikoteknikoak, nortasun probak edo elkarrizketa egiteko baimena emango da.

Eskaera aurkeztean eskatzaileak berariaz adieraziko du ados dagoela datu pertsonalak tratatzearekin, hautaketa prozesuaren helburuetarako.

LAUGARRENA.- IZANGAIK ONARTZEA.

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideen Zuzendaritzak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda egingo du, eta hautaketa prozesuko parte hartzaileei eta Hautaketa Organoari jakinaraziko die. Parte hartzaileek bost egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, zuzen daitezkeen akatsak edo okerrak zuzentzeko.

4.2.- Aurreko atalean ezarritako alegazioen epe barruan zer hautagai aurkeztu diren ikusi ahalko du enpresa batzordeak, eta hala badagokio, haietako zenbait onartzeko edo ez onartzeko alegazioak egin ahalko ditu.

4.3.- Erreklamazioetarako epea igarotakoan, hautagaien behin-behineko zerrenda eta egindako erreklamazioak jakinaraziko dira, Hautaketa Organoak behin betiko onets edo ebatz dezan.

BOSGARRENA.- HAUTAKETA ORGANOA.

5.1.- Deialdi honetarako hautaketa organo bat eratuko da. Hautaketa Organoko kideei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio eta errekusazio kasuak aplikatuko zaizkie.

5.2.- Hautaketa Organoak ariketak egiteko jasotako ordena aldatzeko eskubidea izango du. Horrela, eskumena izango du ezartzeko ariketa bat baino gehiago egin dadila egun berean.

5.3.- Hautaketa Organoaren kideen izen zerrenda deialdiarekin batera argitaratuko da.

5.4.- Hautaketa Organoaren jarduketa baliozkoa izateko, boto eskubidea duten kideen gehiengoa bertaratu beharko da, eta baita lehendakaria eta idazkaria ere. Erabakiak hartzeko, Hautaketa Organotik bertaratzten diren kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da, eta berdinketa egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du.

5.5.- Hautaketa Organoak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta prozeduraren ordena egokia eta legezotasuna zainduko ditu. Era berean, sortzen diren zalantzak argitzeko baimena izango du. Horrez gain, prozesuan zehar sortzen diren gorabehera guztiak ebatzeko erabakiak hartu ahal izango ditu. Oinarri orokorren edo espezifikoen edukia interpretatu ahalko du.

5.6.- Hautaketa Organoaren lehendakariak hartu beharreko neurriak hartuko ditu izangaien nortasunaren konfidentziasuna hautaketa prozesu osoan bermatzeko.

5.7.- Hautaketa Organoak kalifikaziorik handiena lortu duen izangaia hautatu eta proposatuko du lanposturako, eta berdinketa egonez gero, diskriminazio positiboko irizpide hauek aplikatuko dira:

- a) Berdinketa gertatzen bada, % 33ko baino gehiagoko desgaitasuna onartuta duten izangaiei emango zaie lehentasuna lanposturako, eta haien artean, emakumeak lehenetsiko dira.
- b) Berdinketa gertatzen bada, eta ez badago berdinketarik gainditutako desgaituen artean, puntuaziorik handiena lortu duen emakumea lehenetsiko da; bestela, puntuaziorik handiena lortu duen izangaia.

5.8.- Nolanahi ere, 6 hilabeteko probaldia izango du lanpostuak. Probaldi horretan zehar izangaiek zein enpresak uko egin ahalko dute, eta halakoetan ez dute izango kalte ordaina kobratzeko eskubiderik; lan egindako egunak bakarrik ordainduko dira.

5.9.- Hala ere, Zuzendaritza-Kudeatzaitzaren ustez hautatutako pertsonak ez badu gainditzen ezarritako probaldia, puntuaziorik handiena lortu duen gainditutako bigarren izangaiari esleitu ahalko zaio lanpostua. Ez badago, hirugarrenari, eta horrela hurrenez hurren.

5.10.- Probaldia atal hauek baloratuz ebaluatu eta kalifikatuko:

- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokoerak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta moldatzeko gaitasuna.
- Elkarlanerako jokoerak.
- Barneko eta kanpoko harremanak.

SEIGARRENA.- ARIKETAK EGITEA.

6.1- Deialdi bakarra egingo da izangaiantzat, eta agertzen ez direnak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira. Ariketa bakoitzera indarreko NANarekin edo gidabaimenarekin joan beharko dira.

6.2.- Ariketak non eta noiz izango diren jakinaraziko zaie izangaiei.

6.3.- Ariketa bakoitzaren emaitzak argitaratzen direnean, automatikoki 3 egun balioduneko epea irekiko da alegazioak aurkezteko. Epe hori eta alegazioen behin-behineko emaitzak behar bezala argitaratuko dira.

6.4.- Hautaketa Organoak Indesa 2010 SL enpresatik kanpoko langileengana jo ahalko du zenbait ariketa baloratzeko eta egiteko.

ZAZPIGARRENA.- KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA.

7.1- Hautaketa fasea gainditu dutenen behin-behineko kalifikazioak sozietatearen egoitzan (Alaba Jeneralaren kalea, 10, 5., 01005 Gasteiz) eta Indesa 2010 SL enpresaren web orrian argitaratuko dira, eta hautaketa prozesuaren parte hartzaileei jakinaraziko zaie.

7.2.- Hiru (3) egun balioduneko epea irekiko da merezimendu eta ezagutza fasean lortutako kalifikazioen arabera, eta 5.7. oinarrian adierazitako diskriminazio irizpideak aplikatu eta gero, hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendaren aurkako alegazioak aurkezteko. Horrela, behin ebatzita eta banan-banan jakinarazita, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da 5.7. oinarrian ezarritako moduan.

Halaber, aurkeztutako merezimenduak eta haien balorazioa bistaratu ahalko ditu enpresa batzordeak 7.2. oinarrian adierazitako epean, eta haien balorazioaren aurkako alegazioak aurkeztu.

Hautaketa Organoak egindako zerrendako hautagaiek ez badute lanposturik lortzen deialdian eskainitako arloan, arlo bakoitzaren arabera aldi baterako lan poltsa batean sartuko dira, eta zerrenda horretatik deitzean, ordena errespetatuko da.

7.3.- Indesa 2010 SL enpresak lan poltsatik kontratatze eskubidea izango du, beharren arabera, deitutako lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko, hautaketa prozesu hau amaitu eta hurrengo hiru urteetan gutxienez.

ZORTZIGARRENA.- KONTRATAZIO PROPOSAMENA.

8.1.- Izangaien behin betiko kalifikazioaren ostean, Hautaketa Organoak deialdi honetan puntuaziorik altuena lortu duen izangaia Garbiketa Arloko Lantegiko buru lanposturako behin betiko kontratatze proposamena helaraziko dio Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzaitzari. Bestalde, lan poltsa bat eratu du lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko.

8.2.- Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzaitzak deitutako plazari dagokion lan kontratua sinatzeko eskumena izango du.

8.3.- Hala ere, kontratua sinatu baino lehen, nahitaezkoa izango da enpresako Zerbitzu Medikuek osasun azterketa egitea eta lanpostua beteko duena gai ote den adieraztea.

Osasun azterketa ez bada aldekoa, lanpostua lortu ez duen zerrendako hurrengo izangaia proposatuko dio Hautaketa Organoak Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzailetzari, eta horrela hurrenez hurren.

BEDERATZIGARRENA.- LAN BALDINTZAK.

Lanpostua eskuratzen duen pertsonak bete egin beharko ditu deialdi honetan eta Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 29an onetsitako sozietatearen lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian ezarritako lanpostuaren berezko lanaldia, lan baldintzak eta eginkizunak, betiere Indesa 2010 SL enpresaren hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 30(a)

ANDER
EGUIDAZU
ALDALUR -
44678416L

Firmado
digitalmente por
ANDER EGUIDAZU
ALDALUR -
44678416L
Fecha: 2025.01.30
13:28:27 +01'00'

Ander Eguidazu Aldalur
INDESA 2010 SL enpresako zuzendari kudeatzailea

OINARRI ESPEZIFIKOAK

SARBIDE SISTEMA - HAUTAKETA PROZESUA.

Merezimendu fasearen eta ezagutza fasearen bidez egingo da hautaketa.

A.- MEREZIMENDU FASEA.

Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena.

Merezimendu fasean, gehienez, **80 puntu** emango dira, atal hauen arabera:

1. Indesan zein Indesatik kanpo deitutako plazen antzeko eginkizunak izan dituzten lanpostuetan egindako lana:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 30 puntu.

Lanpostuan emandako hilabete oso bakoitzeko puntu 1 emango da, hiru urteko esperientziatik aurrera zenbatuta; izan ere, ezinbesteko betekizuna da lortu nahi den lanpostuaren eginkizunen antzeko lanpostuetan, garbiketa zerbitzuen kudeaketako esperientziaren kasuan, eta 0,5 puntu hilabete oso bakoitzeko oinarri orokorretako 2.4 puntuan zerrendatutako gainerako zerbitzuetan.

Lanpostuan emandako hilabete oso bakoitzeko puntu 1 emango da, hiru urteko esperientziatik aurrera zenbatuta; izan ere, ezinbesteko betekizuna da lortu nahi den lanpostuaren eginkizunen antzeko lanpostuetan.

a. Indesa 2010etik kanpo egindako lana

Izangaiek deitutako lanpostuarekin loturiko lanpostuetan izandako esperientzia egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

- Curriculum vitae.
- Sinatutako lan kontratuak.
- Lan bizitzaren agiri eguneratua.
- Deitutako lanpostuaren antzeko lana egiten den enpresen ziurtagiria.

b. Indesa 2010en egindako lana. (Ez da beharreako egiaztatzea esperientzia).

Lanpostuan mailaz igoz gero aldi baterako, zenbaketa gehienez 6 hilabetera mugatuko da.

2. Prestakuntza akademiko gehigarria:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 24 puntu.

- Business Administration-eko master ofiziala: 12 puntu
- Prozesuen Zuzendaritzako master ofiziala: 12 puntu

3. Lanpostuaren edukiarekin zuzenean lotutako titulazio eta/edo prestakuntza osagarria.

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

Lanpostuaren edukiarekin, desgaitasunarekin edo genero berdintasunarekin zuzenean lotutako prestakuntza osagarriko edo hobekuntzako jarduerak eta ikastaroak.

- 30 ordu edo gehiago eta 60 ordu arteko iraupena duten ikastaroak: puntu 1 ikastaro bakoitzeko.
- 60 ordu edo gehiago eta 100 ordu arteko iraupena duten ikastaroak: 2 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 100 eta 250 ordu arteko iraupena duten ikastaroak: 3 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 250 ordutik gorako iraupena duen ikastaroa, unibertsitate zentro batek emana: 5 puntu.

Ikastaroen ziurtagirietan ordu kopurua zehaztu edo justifikatu beharko da; bestela, ez dira baloratuko.

4. Euskara ezaqutzak:

Gehieneko puntuazioa: 9 puntu.

- 3. hizkuntza eskakizuna edo haren baliokideak: 9 puntu.
- 2. hizkuntza eskakizuna edo haren baliokideak: 6 puntu.
- 1. hizkuntza eskakizuna edo haren baliokideak: 2 puntu.

Ziurtagiri ofizialak aurkeztu behar dira, edo baliokideak badira hori jaso eta justifikatzen duen araudia.

5. Informatika ezaqutzak

Gehieneko puntuazioa: 7 puntu.

Informazio Gizartearen Euskadi Planak KZGune zentro publikoetan eskura jartzen dituen moduluak eskuratzeko probak gainditzea merezimendu gisa baloratuko da. Hona hemen nola:

- Microsoft Word 2010 edo geroagoko oinarritzkoa: 2 puntu
- Microsoft Excel 2010 edo geroagoko oinarritzkoa: 3 puntu
- Outlook 2010 edo geroagokoa: 2 puntu

B.- EZAGUTZA FASEA.

Oposizio aldiak, gehienez, 100 puntu izango ditu, atal hauen arabera:

1. Lehenengo ariketa. Idatzizko ariketa.

Nahitaezko eta baztertze ariketa izango da izangai guztientzat.

Test moduko eta/edo garatzeko galderen ariketa izango da, eta I.eranskinean jasotzen den gaitegian oinarrituko dira.

Ariketa hau gehienez 60 punturekin kalifikatuko da eta gainditzeko 30 puntu beharko dira.

2. Bigarren ariketa.

Nahitaezko eta baztertze ariketa izango da izangai guztientzat.

Elkarrizketa pertsonala eta/edo proba psikoteknikoak eta/edo nortasun probak izango dira, izangaia deitutako lanpostuaren profilerara egokitzen den ala ez baloratzeko.

Ariketa honetan, gehienez, 40 puntu emango dira, eta 20 puntu beharko dira gainditzeko. Hautagaiek arlo hauetan dituzten gaitasunak ebaluatuko dira:

- Ekimena.
- Antolatzeko gaitasuna.
- Agintzeko dohainak.
- Talde lana.
- Komunikazio trebetasunak.



0 ERANSKINA - ESKAERA

Ariketetan izena emateko eskaera:

INDESA 2010 SL enpresaren ZUZENDARITZA-KUDEATZAILTZARENTZAT

Izena eta abizenak: _____

IFZ _____

HELBIDEA

Telefonoa: _____

HELBIDE ELEKTRONIKOA

Lehenengoa: Garbiketa Arloko Lantegiko buru lanpostua betetzeko kanpoko deialdian izena eman nahi dut.

Honekin batera, agiri hauek aurkezten ditut:

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-

Bigarrena.- Baimena ematen dut nire datu pertsonalak tratatzeko beharrezkoa bada deialdi honen helburua betetzeko.

Gasteiz, 2025eko _____ aren _____ (a).

Izangaiaren sinadura:

I. ERANSKINA - GAITEGIA.

Ezagutza orokorrak

Ezagutza orokorrak

- Indesa 2010 SL enpresaren indarreko hitzarmen kolektiboa (ALHAO, 133. zk., 2024ko azaroaren 22koa).
- Indesa 2010 SL sozietatearen xedea.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena. 1., 3., 6., 7., 12., 35., 36., 37., 38., 43., 44., 45. eta 46. artikulua.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 1. artikulutik 24.enera, biak barne.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal agente publikoen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak. 12. artikulutik 24.enera, biak barne. 74. artikulutik 95.enera, biak barne. 118. artikulua. 156. artikulutik 159.enera, biak barne.
- Lege araudia eta lan eskubideak: enpleguarekin eta langileek laneko arriskuen aurrean dituzten eskubide eta betebeharrekin lotuta indarrean dagoen legeria ulertzea.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. 4., 5., 12., 14., 18., 19., 20., 41., 43., 44., 54. eta 58. artikulua.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. 3. art.
- Datu pertsonalen babeserako oinarritzko alderdiak: kontzeptuak, printzipioak eta eskubideak; batez ere, informazio eskubidea datu bilketan, konfidentziasun eginbeharra eta datuen komunikazioa.

Ezagutza espezifikoak.

- Garbiketaren antolaketa eta plangintza: Garbiketa egitekoen plangintza eta programazioaren garrantzia, kontuan hartuta zein diren lekuaren premia espezifikoak, zer baliabide dauden eskura eta zein diren garbiketa metodo eraginkorrenak.
- Laneko arriskuen segurtasuna eta prebentzioa: Lantokian hartu beharreko segurtasun neurriak ezagutzea, baita garbiketako langileentzako prebentzio neurri espezifikoak ere. Horrez gain:
 - LAPLren 1. artikulutik 29.enera, biak barne.
 - 481. POT: Lantokien txukuntasuna eta garbitasuna.
 - Garbiketaren erabilitako teknikak, materialak eta makinak: garbiketa teknikak ezagutzea, baita egiteko bakoitzerako material eta makina egokienak ere.

- Espazio publikoak garbitzea: arreta berezia jarri behar da lurzoruak, estaldurak, bulegoko altzariak eta altzari komun ontziak garbitzeko, bai eta orbanak kentzeko eta higiena mantentzeko ere.
- Garbiketako produktu kimikoak: garbiketa produktuen osaera, etiketak eta piktogramak ezagutzea, bai eta eraginkortasunez eta segurtasunez erabiltzeko dosifikazio egokiak ere.
- Garbiketaren alderdi ekologikoak: ulertzea zein garrantzitsua den hondakinak kudeatzea eta ingurumena errespetatuko duten garbiketa jardunbideak izatea.
- Etengabeko hobekuntzarako tresnak eta tresnen metodologia (PDCA, Kaizen, Lean, Six Sigma, 5s metodologia)

II. ERANSKINA - HAUTAKETA ORGANOA.

Lehendakaria: Indesa 2010 SL enpresaren jarduneko Giza Baliabideen zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren Eragiketa zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren Finantza zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: garbiketarekin lotutako arloaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Lege eta Administrazio Zuzendaritzako teknikari bat.

Enpresa batzordearen ordezkari bat egon daiteke, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.

III. ERANSKINA - LANPOSTUAREN LANTOKIA, BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK.

LANPOSTUA: Garbiketa Arloko Lantegiko burua.

LANTOKIA: hainbat garbiketa zentro Arabako Lurralde Historikoan

SOLDATA: lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memoriaren arabera.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

- Ofimatika tresnen erabiltzaile maila (Office, Word), Excel maila aurreratua
- Garbiketa produktuen, tresnen eta makinien ezagutza sendoak, baita segurtasunari eta ingurumenari buruzko araudienak ere.
- Lidergo trebetasunak, taldeak motibatze eta zuzentzeko gaitasunarekin.
- Ahozko zein idatzizko komunikazio trebetasun bikainak.
- Garbiketa lanak egitean xehetasunari erreparatzea eta kalitatera orientatzea.
- Ingurune dinamikoetan eraginkortasunez eta efizientziaz lan egiteko gaitasuna. Unibertsitate graduko gutxieneko prestakuntza, ahal dela jarduerarekin lotutako espezialitateetan, antolakuntzako edo teknikako beste batzuk baztertu gabe

EGINKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Eginkizun orokorrak:

- a. Indesaren web orrian argitaratutako LBaren arabera (esteka):<https://www.indesa2010.eus/wp-content/uploads/2018/01/O.D.1.MEMORIA-VALORACION.pdf>

Eginkizun bereziak

- Baliabideen dimentsionamendua eta egitekoen plangintza, lan egutegiak
- Arloko, ataleko eta taldeko arduradunak koordinatzea eta gainbegiratzea, lanen behar bezalako plangintzarako eta antolamendurako, halako moldez non zerbitzua bezeroaren zehaztapenen arabera entregatuko dela bermatuko baita.
- Lan eta segurtasun araudia betetzen dela bermatzea.
- Bere ardurapean lan egiten duten pertsonen garapena bultzatzea.
- Bezeroarekiko elkarriketa izatea, antolaketari eta/edo teknikari dagokionez.
- Langileen errendimenduei, produktibitate errendimenduei, langileen kontrolari eta era guztietako gorabeherei buruzko informazioa ematea enpresari.
- Enpresaren kontratazio jarraibideen arabera beharrezkoak diren materialen eta kontsumigarrien eskaerak egitea.
- Eskaintzak egiten parte hartzea, baldin eta lan berriak edo lehendik daudenak handitu edo aldatzen badira.

- Hitzarmen kolektiboan eta/edo lanpostuak deskribatzeko memorian zehaztutako beste edozein eginkizun, bai eta arduradunak agintzen dizkion eta berariaz adierazi ez diren aurrekoen antzekoak ere.